

08 Apirila – 9.alea

LEP-a

Atzo Partzuergoko arduradunekin bilduta egon ginen eta LEP inguruan honako adostasunetara heldu ginen:

Izena emateko epea: Apirilaren 24 aldera zabalduko da epea. Data zehatzak oraindik zehazteke daude apirilaren 4an jakingo ditugu eta berehala plazaratuko ditugu.

Eskabideak aurkezteko era: Denon erosotasunerako interneten bidez egingo da. Izan ere, partzuergoko egoitzan aukera egongo da eskabideak aurkezteko.

Tasak: 13,02 €.

Bete beharreko baldintzak:

- Hezkuntzako 2. hizkuntza-eskakizunaren, EGAREN edo horien baliokideen jabe izatea (informazio gehiagorako, ikus urriaren 6ko 263/1998 Dekretua, 1998ko urriaren 23ko EHAA, 202. zenbakidunean, argitaratua).
- Haur Hezkuntzako berezitasuneko Maisu-maistra titulua
- Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikari titulua
- Hezkuntza Administrazioak antolatu edo homologatutako Haur Hezkuntzako espezializazio- edo homologazio-ikastaroak gainditu dituztenak 1996ko urtarrilaren 11ko Aginduaren arabera.

Plaza kopurua: 485 txanda librean eta 15 ezinduentzat. **GUZTIRA 500.**

Data: Azaroaren hasieran.

Frogak: bi froga eta egun berean.

- **1. froga:** 100 galdera eta ordu bat eta erdi erantzuteko. Uda baino lehenago Partzuergoak galdera sorta bat emango digu azterketa prestatu ahal izateko. 8 puntu.

www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	t1. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatua.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	t1. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatua.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	t1. 943 45 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatua.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	t1. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatua.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	t1. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatua.org

08 Apirila – 9.alea

- 2. froga: Programazioa eta eguneroko lanarekin zerikusia duten kasu praktikoei buruzko galderak erantzutea. Azterketa hau egiteko 2 ordu izango ditugu. 12 puntu.

Frogak ez dira baztertzailak izango baina zehazturik gabe dagoen gutxienerako bat atera beharko da meritajea barematu ahal izateko. Frogak euskaraz zein erderaz egiteko aukera egongo da.

Merituak: - Lan esperientzia: Partzuergoan: 0,14 hilabeteko.
Gainontzeko zentroetan: 0,7 hilabeteko.
Atal honetan 7 puntu atera ahal dira guztira.

- **Formakuntza:** Partzuergoak emandako ikastaroak: zehazteke
Beste ikastaroak:15 eta 40 orduetakoak: zehazteke.
40 ordu baino gehiagokoak:zehazteke
Atal honetan 2 puntu atera ahal dira guztira.

1953. urtean eta aurretik jaiotakoek eta beti ere, apirilaren 1a baino lehen interinitate kontratua daukatenean, LABek LEParen inguruan **proposatutako** eskaera zehatz bati esker, hainbat onura lortu ahal izango dituzte. (zehazteke dago)

Lasai, LABek prozesu hau guztia aurrera eraman ahal izateko materiala eta ikastaroak prestatuko dituelako.

Lehen aipatutako moduan datu eta data zehatzak izango ditugunean berehala helaraziko dizuegu.

AURREAKORDIOA

Aurreko informatzenezan esan genuen bezala, atzo aurreakordioa sinatu genuen. Apirilaren 16an beste batzar bat izango dugu Lan Hitzanmenaren gainontzeko puntuak eztabaidatzeko: Lizentziak eta baimenak, hobekuntza sozialak, lan osasun arloko hobekuntzak, kudeaketako pertsonalaren lan baldintzak...beste batzuen artean.

LABek berretsi nahi du langileen eskubideen alde borrokatzen jarraituko duela eta gure helburuak lortu arte gogor lan egingo dugula.

Animo!..... ETA AURRERA! NAHIKO LANA GELDITZEN ZAIGU ETA.

www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatu.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 45 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org